berrikuntza publikoaren plana | plan de innovación pública

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ardatz estrategikoa:** | **5. ardatza.- Administrazio elektronikoa** | **Proiektua:** | **5.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua** |
| **Azpiproiektua:** | **5.1.3. Zerbitzu elektronikoko zerbitzuei euskarria emateko administrazio-unitateak sortzea sailetan** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Eusko Jaurlaritzaren antolamendua egokitzea, Administrazio Elektronikoaren ondorio diren funtzio berriei erantzuteko:<br>• Sailetako webguneak eta webgune tematikoak kudeatzea<br>• Tramitazio elektronikoa: zerbitzu-katalogoa, prozeduren konfigurazioa, elkarreragingarritasuna, dokumentuak estandarizatzea,…<br>• Herritarrei arreta emateko Zuzenean zerbitzuarekin elkarreragina izatea | | |

| **Helburu orokorrak:** | **Helburu operatiboak:** |
|---|---|
| • Zerbitzu elektronikoen kanpoko nahiz barneko erabiltzaileen gogobetetasun-maila igotzea<br>• Zerbitzu elektronikoen kudeaketa eraginkorrago egitea | • Unitateen % 50 martxan egotea 2014ko abendurako<br>• Gainerako unitateen % 50 martxan egotea 2015eko abendurako |

**Egikaritzea:**

- Ez da korporatiboki eta sistematikoki jorratu sailetako zerbitzu elektronikoei euskarria emateko unitateen sorrera, sail bakoitzak banan-banan erantzun dielako beharrizan horiei. Hala, Antolakuntza Zerbitzuak dituzten sailek (gutxiengoak) zerbitzu horiei egotzi dizkiete zerbitzu elektronikoei euskarria emateko eginkizunak. Beste kasu batzuetan, eginkizun horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, askotariko lanbide-profiletako teknikariek bideratzen dituzte: informatikako arduradunek, EJIEren laguntza teknikoak sailetan, agirizainek eta artxibozainek, informazio-zerbitzuen arduradunek, webguneen kudeaketa-sailek, tramitazio-unitateen arduradunek...
- Oro har esan daiteke zerbitzu elektronikoak kudeatzeko sailen euskarri egokia izateko beharrizana oraindik ere ez dela behar bezala bideratu, eta horrek oztopo handia dakarrela administrazio elektronikoaren erabilera normalizatuan.

| **Arduraduna:** | **Aurreikusitako denbora-tartea:** | **Egikaritzeko benetako epea:** | **Egoera:** | **Balorazioa:** |
|---|---|---|---|---|
| DACIMA | Epea: 2 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2015 | Hasiera:<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>☐ Aribidean<br>■ <u>Hasi gabe</u> | ☐ Positiboa<br>☐ Hala-nolakoa<br>■ <u>negatiboa</u> |

**Oharrak:**